

Emakumeak landa-ingurunean 2012

Indizea

1. Ezaugarri orokorrak.....	4
1.1 Lagina zer den	4
1.2 Etxebizitzak.....	4
1.3 Familia-nukleoak	5
1.4 Jatorria.....	7
1,5 Hizkuntza	8
1.6 Prestakuntza.....	10
2. Denboraren banaketa	11
2.1 Lan ordaindua.....	13
2.2 Etxeko lanak	14
2.3 Adin txikikoak zaintzea	15
2.4 Beste zainketa-lan batzuk	16
2.5 Lekualdaketak.....	16
2.6 Nork bere buruari eskaintzen dion denbora	17
3. Jarduera nagusia, lana eta enplegua.....	17
3.1 Jarduera, okupazioa eta langabezia	17
3.2 Lan ordainduen ezaugarriak.....	18
4. Nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzea	19
4.1 Ustiategiarekiko lotura-maila.....	20
4.2 Ustiategiko jarduerak	21
4.3 Titulartasuna	21
4.4 Ustiategiaren eguneroko funtzionamendua eta erabakiak hartzea	22
4.5 Sektorearen egoera ulertzeko moduak.....	22
5. Bizitza landa-ingurunean.....	23
5.1 Informazio-gizartea	23
5.2 Ekipoen eta zerbitzuen eskuragarritasuna eta ohiko erabilera	24

5.3 Mugikortasuna	26
5.4 Herriak aurrera egin dezan.....	27
6. Elkartegintza, politikan parte hartzea eta aisialdiko jarduerak.....	28
7. Etorkizuna.....	31
8. Ondorioak.....	32

1. Ezaugarri orokorrak

1.1 Lagina zer den

Ikerketa hau egiteko erabili dugun lagina 15 urtetik gorako emakumeek, landako herrietan bizi direnek, osatu dute. Landako udalerri gisa sailkatua izateko, honako hiru ezaugarri hauek bete behar dira:

1. biztanleria (< 2.500 biztanle)
2. biztanleriaren dentsitatea (< 85 biztanle/km¹)
3. lehen sektorearen garrantzia (> % 10 udal BPG²)

Hiru ezaugarri horiek biltzen zituzten udalerriak oso gutxi zirenez, laginak barne hartu zituen ezaugarri horietako bi soilik betetzen zituzten udalerriak ere, baldin eta lehen sektorearen BPG-a EAEkoa (% 0,70) baino txikiagoa ez bazen. Areago, ezaugarri bat baino betetzen ez zuten udalerriak ere aintzat hartu ziren, lehen sektorean garrantzi handia zutelako, eta muga-balioetatik hurbil zeudelako.

Lagina egiteko metodologiaren xehetasunak eta errorearen kalkulua eranskinetan agertzen dira.

1.taula: Aztertu beharreko biztanleriaren osaera (landako udalerriak) adin eta Lurralde Historikoaren arabera

Grupo Edad	Número	% del total	Territorio	Número	% del total
15 A 25	4.580	10%	ARABA	15.746	34%
26 A 39	9.658	21%	BIZKAIA	19.237	42%
40 A 54	13.225	29%	GIPUZKOA	10.882	24%
55 A 64	6.454	14%			
65 EN ADELANTE	11.948	26%			
TOTAL	45.865		TOTAL	45.865	

Landako udalerri horiek herri guztien % 51 osatzen dute, azaleraren % 59 eta biztanleriaren % 4,9. Emakumeen ehunekoa herri "urbanizatu"agoetan baino txikiagoa da. Aztertutako herrietan emakumeek % 48 osatzen dute (landako udalerriak ez diren udalerrietan emakumeen ehunekoa % 51 da).

1.2 Etxebizitzak

Landa-ingurunearen ezaugarri bat biztanleguneak egituratzeko modua da. Etxebizitzak, orokorrean, sakabanatuta daude, edo, bestela, garrantzi handiagoko edo txikiagoko biztanleguneen barnean. Bestalde, zein etxebizitza-mota nagusi den beste bereizgarri bat da: banakako etxebizitzak (baserriak, txaletak, etxe atxikiak) edo taldeko etxebizitzak (pisuak).

¹ Udal BPG-aren kalkulua Eustatek 2007 urterako egindakoa da.

² Landa udalerrien eta landa ez diren udalerrien konparaketaren iturria Eustat-en "Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua 2006" eragiketa eta INEren "Nomenclator municipal" dira.

Banaketa horrek zerikusi handia du ingurune hurbilean bizi diren pertsonen arteko harreman-motarekin, beharrezkoak diren tresna eta zerbitzu zehatzekin, bai eta horiek eskuratzeko moduarekin ere.

2. taula. Etxebizitzen kokapena

	% herri-gunean	Etxebizitza sakabanatua	Banakako	
			etxebizitza	Taldekoa
Araba	% 91,2	% 8,8	% 75,6	% 24,4
Gipuzkoa	% 67,7	% 32,3	% 47,5	% 52,5
Bizkaia	% 54,1	% 45,9	% 69,4	% 30,6
EAE	% 70,0	% 30,0	% 66,3	% 33,7

Landa-inguruneko biztanle gehienak biztanleguneetan bizi dira (biztanleen % 70), baina lurraldeen arteko aldea oso nabarmena da: Araban biztanleen % 91 biztanleguneetan bizi dira, eta Bizkaian, % 54. Hori lurralde historiko bakoitzaren landa-egituragatik da: Araban landako biztanleak biztanlegune txikietan bizi dira, batik bat; eta Gipuzkoan eta Bizkaian baserriak sakabanatuago daude.

Landako biztanleguneetan bizi diren biztanleei dagokienez, Araban haietako % 75 banakako etxebizitzetan edo baserrietan bizi dira, eta Gipuzkoan, ordea, % 48.

1.3 Familia-nukleoak

Familia "tradizionala" eta ez zabala da familia-nukleo ohikoena. Familia-nukleo horretan bikote bat beste senide batzuekin bizi da; familien % 61ek osaera hori dute. Haietako % 66k 1,65 seme-alaba dituzte, batez beste, eta haiekin batera bizi dira. Familien % 24 aurreko belaunaldikoekin bizi dira familia-nukleoan; eta familien % 20 baino familia gutxiago bizi dira beste senide batzuekin.

Etxe berean bizi diren familia gehienak lau kidek osatuta daude (familien % 28); biztanleen heren bat baino gehiago horrela dago antolatuta. Familien % 25ek hiru kide dituzte, eta beste % 25ek bi kide. Hiru familia-mota horietan landako biztanleen % 75 bizi da.

3. taula: Landako biztanleak eta familien osaera, familiako kideen arabera

EAE		Biztanleak %	Familiak %
Etxeko kideen kopurua	1	% 3	% 9
	2	% 15	% 25
	3	% 24	% 25
	4	% 36	% 28
	5	% 12	% 8
	6	% 7	% 4
	7	% 2	% 1
	8	% 1	% 0

Emakume gazteenak (54 urteraino) lau pertsonak osatutako familietan bizi dira, batik bat. Adin horretatik aurrera, familia-tamainak behera egiten du, eta 55 urtetik gorako pertsona gehienak bi pertsonako familietan bizi dira. Azken lau urteotan nabarmena izan da landako herrietan bakarrik bizi diren emakume-kopuruaren igoera; kopuru hori % 21 da, eta 2008an % 13 zen soilik.

4. taula: Landako emakumeak, adinaren eta egoera zibilaren arabera %

	Ezkonduta	Bereizita	Bikotearekin bizitzen	Alargun	Dibortziatua	Ezkongabe
15etik 25era	1,6%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	98,4%
26tik 39ra	45,3%	1,0%	17,2%	0,0%	0,0%	36,5%
40tik 54ra	76,1%	1,1%	4,1%	0,0%	1,8%	16,9%
55etik 64ra	84,3%	2,9%	0,0%	3,8%	3,3%	5,7%
65etik aurrera	48,6%	2,5%	0,0%	46,3%	0,0%	2,5%
Guztira	56,1%	1,6%	4,8%	12,6%	1,0%	23,9%

5. taula: Landako gizonak, adinaren eta egoera zibilaren arabera %

	Ezkonduta	Bereizita	Bikotearekin bizitzen	Alargun	Dibortziatua	Ezkongabe
15etik 25era	9,5%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	90,5%
26tik 39ra	29,0%	0,0%	1,4%	0,0%	1,9%	67,7%
40tik 54ra	71,1%	2,6%	0,7%	0,0%	4,5%	21,1%
55etik 64ra	75,2%	2,8%	0,0%	5,6%	0,0%	16,4%
65etik aurrera	78,3%	2,0%	1,8%	3,6%	0,0%	14,4%
Guztira	58,8%	1,7%	0,9%	1,7%	1,8%	35,0%

Emakumeen % 61 ezkontuta dago, edo bikotean bizi da. Emakumeen % 3 inguru bananduta edo dibortziatuta daude, eta aurreko inkestaren emaitzaren parekoa da. Alargunen kopurua apur bat igo da, % 13raino; eta hori bat dator biztanleen zahartzearekin. Emakume ezkongabeen kopura nabarmen igo da: % 18tik % 24ra, hain zuzen ere.

Ezkonduta edo bikotekidearekin bizi diren gizonen kopurua eta emakumeena antzekoak dira. Bananduta edo dibortziatuta dauden gizonen kopurua emakumeena baino handixeagoa da. Alargunen kopurua askoz txikiagoa da, emakumeen kopuruaren aldean. Gizon ezkongabeen kopurua emakumeena baino % 11 handiagoa da.

Seme-alaben kopurua emakumeko 1,59 da. Egindako azterlanen arabera, zifra hori murriztuz joan da (2008an 1,71 izan zen; 2004koa baino txikiagoa). Hala ere, EAEko batez bestekoa (1,4) baino handiagoa da.

6. taula: Seme-alaben kopurua emakumeko, adin-taldearen arabera %

	0	1	2	3	4	5	6
15etik 25era	82,6%	11,8%	4,6%	1,0%	0,0%	0,0%	0,0%
26tik 39ra	46,4%	23,1%	28,5%	1,9%	0,0%	0,0%	0,0%
40tik 54ra	23,3%	25,6%	37,1%	9,2%	2,7%	2,0%	0,0%
55etik 64ra	11,9%	24,5%	41,2%	15,1%	5,5%	1,8%	0,0%
65etik aurrera	6,3%	14,3%	27,3%	26,7%	11,6%	9,8%	3,9%
Guztira	28,1%	20,6%	30,1%	12,3%	4,6%	3,4%	1,0%

Nabarmena da seme-alabarik ez duten emakumeen kopurua: % 28. Emakumeen % 30ek bi seme-alaba dituzte, eta emakumeen % 9k baino ez dituzte hiru seme-alaba baino gehiago. Adinaren arabera azterketa deigarria da: 26 eta 39 urte bitarteko emakumeek batez beste 0,86 seme-alaba dituzte emakumeko. 40 eta 54 urte bitarteko emakumeek batez beste 1,49 dituzte. Batezbestekoak 55 eta 64 urte bitartekoen artean gora egiten du, 1,83 izan arte. Eta 65 edo urte gehiagoko emakumeek batez beste 2,67 seme-alaba dituzte emakumeko.


Inkestaren arabera, landa-ingurunean hiru edo urte gutxiagoko neska-mutilen kopurua 5.500 da; 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutilen kopurua 12.000 da; eta 13 eta 17 urte bitarteko gazteen kopurua 4.000 da. Beraz, datu hori kontuan hartzekoa da, landa-udalerrri horietan aisia- eta prestakuntza-baliabideak antolatzerakoan.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen kopurua 3.700 ingurukoa da, azterlanaren arabera (landako biztanleen % 4 inguru); eta pertsona horiek familiako emakumeen % 90ek (gutxienez) zaintzen dituzte.

1.4 Jatorria

Landa-ingurunearen ezaugarri bat errotzea da, hau da, landako emakumeen % 76k jaio ziren lurralde historiko berean bizitzen jarraitzen dute; haietako % 41 udalerrri berean bizi dira, eta horietatik % 76 tokiko erakunde berean. Egoera horri dagokionez, Araban udalerrri berean bizitzen jarraitzen duten emakumeen kopurua % 31 da; eta Gipuzkoan % 59.

1. grafikoa: Landako emakumeak, jatorriaren arabera. EAE



Emakume horietatik % 18 baino ez da Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaio, eta haietatik % 5 soilik beste herrialde batzuetan jaio da. Ehuneko hori egonkorra izan da azken urteotan. Beste herrialde batzuetakoak diren emakume gehienak 26 eta 39 urte bitartekoak dira (% 46), eta ia guztiak (% 81) 26 eta 54 bitartekoak dira. Espainiako estatuko beste probintzia batzuetatik etorri diren emakume gehienak (% 59) 55 urtetik gorakoak dira; beraz, bilakaera egon da. Horrek esan nahi du segidako immigrazio-aldiak gertatu direla, eta prozesu horiek egonkortu egin direla. Lehen immigrazio-prozesuan Estatuko etorkinak etorri ziren, eta, bigarreanean atzerrikako etorkinak. Honako hauek dira emakume horien atzerriko jaioterriak: Erdialdeko Amerika eta Hego Amerika (% 67), Europar Batasuneko beste herrialde batzuk (% 16), Afrika (% 10) eta Ozeania (% 7).

1,5 Hizkuntza

Komunikazio-hizkuntzari dagokionez, EAERI buruzko datu orokorrek (2006) erakusten dute familien % 21ek euskara hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten dutela; eta kopuru hori ia % 50eraino igotzen da landa-ingurunean. Salbuespena Arabako lurralde historikoa da, hiri-ingurune eta landa-ingurune jokabideak antzekoak direlako. Gainerako lurralde historikoetan, ordea, landa-ingurunean askoz ere euskaldun gehiago daude.


7. taula: Euskararen erabilera, lurralde historikoetan eta EAEn %³

	EAE guztira	Landa Eremua
Araba	6,1%	6,0%
Gipuzkoa	39,6%	86,3%
Bizkaia	14,8%	57,5%
EAE	21,5%	46,6%

Egoera lurralde historikoaren arabera aztertzen badugu, zera aurkitzen dugu: Araban komunikazio-hizkuntza gaztelania da, batik bat; % 93k gaztelania hutsez hitz egiten dute, eta % 4k euskaraz eta gaztelaniaz. Gipuzkoan euskara da gehien hitz egiten den hizkuntza: familien % 76k euskara hutsez hitz egiten du, eta % 10ek euskaraz eta gaztelaniaz. Bizkaian tarteko egoera dago, eta gaztelaniaren eta euskararen erabilera parekoa da.

³ EAERako iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika 2006

2. grafikoa: Ohiko komunikazio-hizkuntza, lurralde historikoetan eta EAEn %



Bi hizkuntza horiekin batera, familien % 2n komunikazio-hizkuntza nagusiak beste batzuk dira: esaterako, arabiera, portugaleria edo galiziera.

Adinei erreparatuta, gazteek era orekatuan erabiltzen dituzte gaztelania eta euskara; eta euskara da haien artean komunikatzeko tresna nagusia. Erabilera partekatuaren ehuneko handiena gazteek osatzen dute. Beste hizkuntza batean (ez euskaraz, ezta gaztelaniaz ere) hitz egiten duten familia gehienak 26 eta 39 urte bitarteko adinetan daude, eta ia % 4 dira; izan ere, beste herrialde batzuetan jaio diren eta hona bizitzera etorri diren emakumeak adin horretakoak dira. 40 eta 54 urte bitartekoen artean euskaldun-kopuru txikiena dago, eta 65 urtetik gorakoak euskara eta gaztelania gutxien tartekatzen dituztenak dira.

Elebidun testuinguru horretan, non beste hizkuntza batzuk ere sartzen ari diren, garrantzitsua da gizarteak komunikazio-behar horiei egokitzeko zerbitzuak eskaintzen ote dituen jakitea. Inkestan emakumeei galdetu diegu ea batzuetan ohikotzat ez duten beste hizkuntza batez arreta egiten dieten, eta egoera horietan euren ama-hizkuntzan hitz egitea nahiago izango zuketena. Emakumeen % 17k esan du noizbait halako egoera batean egon direla. Harrigarria da EAEko hizkuntzez bestelako hizkuntzetan hitz egiten duten emakumeek horrelako egoerarik aipatu ez izana; ziur asko, hori normaltzat hartzen dutelako. Hala eta guztiz ere, emakume euskaldunek egoera horien berri eman dute, eta oso ehuneko txikia bada ere, gaztelaniaz hitz egiten dutenak ere bai.

Batez ere, emakume gazteek sentitzen dute ezin dutela haiek aukeratutako hizkuntzan hitz egin: emakume horien % 27k eman dute arazo horren berri. Bestalde, 55 urtetik gorako emakumeen % 12k baino ez du arazo hori adierazi. Emaizta horiek adierazten dute emakumeen jokabidea, bai eta haiek aukeratutako hizkuntzan beti hitz egiteko eskubidea aldarrikatzeko borondatea ere.


Edonola ere, badirudi aurreko inkesta egin zenetik hona egoera egonkortu dela. Arazo gehienak honako arlo hauetan agertzen dira: arlo judizialean (% 25); osasun-arretan (% 22) eta administrazio-izapideetan (% 21). Merkataritzak, aisiak eta beste egoera batzuek gainerako % 32 osatzen dute.

Dena den, gizartearen hizkuntza-aniztasunak eskatzen du gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiteko aukera egoera guztietan bermatzeko, hizkuntza biak ofizialak baitira. Bestalde, beste hizkuntza batzuetan hitz egiten direnei ere komunikazioa erraztu behar zaie.

1.6 Prestakuntza

Prestakuntza-mailaren arabera, landa-inguruneko pertsonen banaketa eta EAEko pertsonen ehuneko orokorra oso antzekoak dira. Alde handienak erakusten dira ikasketarik ez duten pertsonen ehunekoen gainean, landa-ingurunetan kopuru hori handiagoa baita. Lanbide-heziketari dagokionez, ohikoagoa da landa-ingurunean. Eta ingurune bietan emakumeen artean baino ohikoagoa da gizonen artean.

3. grafikoa: Prestakuntza-maila, arloaren eta sexuaren arabera EAE %⁴



Bigarren mailako prestakuntza landa-ingurunean baino ohikoagoa da EAEko. Unibertsitate-prestakuntzari dagokionez, landako emakumeek EAEko emakumeen banaketa bera dute. Landako gizonen dagokionez, unibertsitateko goi-mailako ikasketak baino ohikoagoak dira unibertsitateko erdi-mailako ikasketak, EAEko gizon guztien ikasketen aldean.

Sexuari lotutako aldeak nabarmenak dira landako ingurunean: emakumeen % 1ek nekazaritzari buruzko lanbide-heziketa dute, eta gizonen % 6k. Bestalde, landako emakumeen % 14k unibertsitate-ikasketak dituzte, eta gizonen % 8k.

Adinen arabera, beste alde batzuk daude. 65 urtetik beherakoen artean, ia ez dago ikasketarik ez duen pertsonarik, eta emakumeen kopurua baino handiagoa da gizonena. Urte horietatik gorako artean, pertsonen % 28k ez du ikasketarik. Oro har, ikasketarik gabeko pertsonak zaharrenak dira.

Lehen mailako ikasketak ohikoenak dira 55 urtetik gorako emakumeen artean (% 63). Bestalde, nekazaritzari buruzko lanbide-heziketa, batez ere, 26 eta 39 urte bitarteko gizonen dute (% 15). Adin-tarte horretan, hain justu, lanbide-heziketa ohikoena da (% 46), eta, horren atzetik, 40

⁴ EAE-rako iturria: EUSTAT Hezkuntzari buruzko udal-estatistika 2010

eta 54 urte bitarteko adinean (% 31). Adin horretako emakume batzuek ere lanbide-heziketa dute, eta kopurua garrantzitsua da: % 30.

26 eta 39 urte bitarteko belaunaldikoek goi-mailako ikasketen ehunekorik handiena osatzen dute (gazte asko oraindik ikasketak egiten ari dira). Adin-tarte horretan, gizonen % 16k eta emakumeen % 32k unibertsitateko goi-mailako prestakuntza dute. Emakumeek goi-mailako heziketa izateko joera handiagoa dute, eta joera hori lehendik ere antzeman zen. Zehatz-mehatz, 40 eta 54 urte bitarteko emakumeen % 27k unibertsitate-ikasketak dituzte (eta gizonen % 15ek).

2. Denboraren banaketa

2004an eta 2008an emakumeei galdetu genien beren denboraren erabileraz, eta beren bikotekidearenaz. 2012ko inkestan, emakumei ez ezik gizonei ere galdetu diegu, emakumeen eta gizonen denbora-erabileren arteko konparazioa egokiagoa izan dadin. Horrez gain, batzuei eta besteei berriro galdetu zaie bikotekidearen denboraren erabileraz; horrela, batzuek besteei buruz dituzten pertzepzioak erkatu ahal izan dira, baita sexuen arabera konparazioa egin ere.

4. grafikoa: Denboraren banaketa, sexuaren arabera %



Denboren banaketari dagokionez, ez da kontuan hartu lo egin, jan eta garbitu behar fisiologikoak asetzeko denbora.


Datu horien arabera, emakumeek astean 49 ordu ematen dituzte lanean, eta gizonak 45. Sexu batak eta besteak 4 ordu ematen dituzte lekualdaketa egiten: lekualdaketa horiek oso garrantzitsuak dira landa-ingurunean. Gizonak 14 ordu eskaintzen diote beren buruari, eta emakumeek, ordea, 13. Hori horrela, emakumeek astero hiru ordu gehiago lan egiten dute, gizonen aldean.

Gizonen jarduera nagusia lan ordaindua da (% 39), eta emakumeen jarduera nagusia etxeko lanak (% 30). Emakumeak ere gehiago arduratzen dira zaintze-lanak egiteaz (% 23), gizonen aldean (% 14). Dena den, gizonak gero eta parte handiagoa hartzen ari dira adin txikikoen zaintzan.

EAEko datuek gauza bera adierazten dute: etxetik kanpo lan egiten duten gizonak % 33 dira, eta emakumeak % 23. Era berean, aisiari eta gizarteko harremanei dagokionez, gizonen denboraren % 23 hartzen dute, eta emakumeen denboraren % 19.

Aitzitik, gizonak denboraren % 11 ematen dute etxeko lanak egiten, eta, emakumeek, ordea, % 29. Era berean, gizonak gehienez denboraren % 1,7 ematen dute zaintze-lanetan, eta emakumeek kopuru hori biderkatzen dute, lan horiei denboraren % 3,3tik gora eskaintzen dietelako.

5. grafikoa: Denboraren banaketa. EAE 2008⁵



Inkestan jaso den datu hau bitxia da: gizonak eta emakumeek bikotekideei esleitu dieten denbora-kopuruak bat etorri arren, sexu bakoitzak bere buruari esleitu dion denbora-kopuruari dagokionez, aldeak daude. Emakumeek bikotekideei esleitu dieten gizonak euren buruari esleitu dioten denbora-kopuru bera, baina gizonak bikotekideei esleitu dieten emakumeek beren buruari esleitu dioten baino % 10 gehiago.

⁵ Denbora-aurrekontuen inkesta 2008 EUSTAT

Segidan, zehetasun handiagoz aztertuko dugu zertan erabiltzen duten denbora:

2.1 Lan ordaindua


65 urtetik beherakoak gizonen % 76k adierazi dute lan ordaindua dutela, eta lan horretan asteko 41 ordu ematen dutela; beraz, horrek asteko denboraren % 52 hartzen du. 65 urtetik beherako emakumeen % 55ek dute lan ordaindua, eta asteko 32 ordu ematen dituzte lan horretan; beraz, horrek asteko denboraren % 40 hartzen du.

Lan ordaindua duten emakumeen % 25ek lanaldi partzialeko lanpostua dute (ia 5.000 emakume), eta asteko 21 ordu ematen dituzte lan hori egiten (haien denboraren % 27). Gainerako % 75ek lanaldi osoko lanpostua dute, eta astean 39 ordu ematen dituzte lan horretan (haien denboraren % 46). Ordaindutako lana duten gizonen % 2k baino gutxiagok dute lanaldi partzialeko lanpostua.

Lanaldi partzialeko lanak, batez ere, emakume gazteenek dituzte (% 68), eta gainerako adin-tarteetan lanaldi partzialeko lana % 25koa da.

Bikoteetan, biek lan ordaindua baldin badute⁶, bikoteen % 44n biek ematen dute denbora-kopuru bera lanean; eta bikoteen % 41en gizonak emakumeak baino denbora gehiago ematen du. Bestalde, bikoteen % 15en emakumeek denbora gehiago ematen dute ordaindutako lanean.

6. grafikoa: Lanean emandako denboraren banaketa, sexuaren arabera %



Lan ordainduan ematen den batez besteko denbora asteko 40 ordukoa da, eta kopuru hori ohikoena da bai gizonen kasuan (% 73), bai emakumeen kasuan (% 55). Aitzitik, gizonek (% 9) baino emakume gehiagok (% 38) ematen dituzte 35 ordu baino ordu gutxiago lan ordainduan. Lan ordainduan ordu-kopuru handiagoa ematea ohikoagoa da gizonen artean (% 17) emakumeen artean baino (% 6).

⁶ Emakumeen eta gizonen inkesten emaitzak bateratu dira.

Jarduera nagusiari eskeintzen zaion denboraren arabera aztertzen baldin baditugu, emakumeen artean nekazaritza nabarmentzen da (74 ordu eskaintzen diote); eta ordu-kopuru horrek biderkatzen du emakumeek beste edozein lanbide-jarduerari eskaintzen dioten denbora. Oro har, gizonek ordu gehiago ematen dute lan ordainduan, emakumeen aldean. Jarduereen uniformetasuna handiagoa da, baina nekazaritzari eskaintzen dioten ordu-kopuru handiena (52 ordu).

2.2 Etxeko lanak

Eustaten 2008ko denbora-aurrekontuen inkestan jaso zen emakumeak gizonak baino hiru aldiz gehiago arduratzen direla etxeko lanak egiteaz. Datu horiek bat zetozen landako emakumeen gaineko 2008ko inkestan jasotako datuekin. Hori zertxobait aldatu da, eta 2012ko inkestan jaso dugu gizonak erreprodukzio-lanari ordu-kopuru bera eskaintzen jarraitzen dutela (asteko 10-11 ordu inguru), baina emakumeek eskaintako denbora-kopurua murriztu dela, hau da, 2008ko inkestan asteko 30 ordu ziren, eta 2012ko inkestan asteko 20 ordu dira.

Jarduera-mota hori aztertzerakoan, garrantzitsua da noren ardura den aztertzea. Askotan, zereginen banaketak berdintasunezko banaketa eman dezake, nahiz eta emakumeek erantzukizuna gain hartu duten⁷.

Lortu ditugun datuen arabera, emakumeen % 47k etxeko lanen erantzukizun zuzena dute. Bikoteen % 21ek ardura partekatzen dute; eta beste % 21ek etxean bizi den beste pertsona batekin partekatzen dute. Egoeren % 11n erantzukizuna etxean bizi den beste pertsona bati dagokio (beste emakume bat izan daiteke).

Adinen arabera, zereginen ardura gain hartzen duten emakumeen ehunekorik handiena emakume zaharragoek (55 urtetik gora) osatzen dute. Emakume gazteagoei dagokienez (15 eta 25 urte bitartekoak), erdiek ez dute etxeko lanen gaineko erantzukizunik hartzen. Erantzunkidetasunaren ehuneko handiena 26 eta 54 urte bitarteko adinean jaso da.

Etxeko lanei eskaintako denbora onartutako erantzukizunaren arabera aztertzen badugu, emakumeek, batez beste, asteko 20 ordu eskaintzen diete, eta gizonek 10,5. Inkestaren arabera, emakumeek etxeko lanen ardura gain hartzen dutenean, horretan denbora gehiago ematen dute asteen, zehazki, 25,7 ordu; eta gizonek 3,5 ordu baino ez. Bikotekideek erantzukizuna partekatzen dutenean, emakumeek, batez beste, 17,9 ordu ematen dituzte lan horietan; eta gizonek 13,1. Emakume batzuek etxeko lanen ardura euren gain hartzen ez dutela esan arren, asteko 7,7 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten.

Etxeko lanen gaineko arduraren bat hartzen duten emakumeen % 45ek laguntzarik gabe egiten dute. Emakumeen % 8k laguntza-mota bat kontratatzen du, eta gainerakoei (% 47) familiako kide batek nolabait laguntzen die. Horrek esan nahi du lehenek (laguntzarik gabe egiten dutenak) 27 ordu ematen dituztela etxeko lanak egiten; laguntza kontratatzen duten emakumeek 12 ordu ematen dituztela; eta familiako laguntza jasotzen duten emakumeek asteko 18 ordu ematen dituztela.

⁷ Erantzukizunaren kontzeptua ez bakarrik lanak egitearen banaketarekin lotuta dago baizik eta beraien planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

Erantzunkidetasuna partekatzen duten bikoteen kasuan, bikoteen % 48n kide biek denbora-kopuru bera ematen dute horretan; bikoteen % 7n, gizonak emakumeek baino denbora gehiago ematen dute, eta gainerako % 45en emakumeek ematen dute denbora gehiago.

Erantzukizun bateratuaren eta emakumeek lan ordainduari ematen dioten ordu-kopuruaren artean erlazio zuzena dagoela erakutsi da. Emakumeek etxeko lanak laguntzarik gabe egin behar badituzte, lan ordainduan 10,5 ematen dituzte astero. Erantzukizuna bikotekidearekin partekatzen dutenean, ordea, 24 orduraino igotzen da ordu-kopuru hori.

2.3 Adin txikikoak zaintzea

Aurreko inkesten emaitzek erakutsi zuten bezala, adin txikikoen zaintzan erantzunkidetasun handiena antzematen da, eta kide biek horretan ematen duten ordu-kopurua orekatuagoa da.

Batez besteko datuek diote emakumeek zeregin horietan 12 ordu ematen dituztela, eta gizonak 7. Dena den, segidan, datu horiek aztertuko ditugu honako hauek kontuan hartuta: seme-alaben adina, seme-alaben kopurua, etxeko lanen gaineko erantzunkidetasuna eta zainketa-lanak.

65 urtetik gorako emakumeen % 23k denbora ematen dute adin txikikoak zaintzen, (4 emakumetik 1). Emakume horiek ez dira zaintzen dituzten umeekin bizi (oro har, bilobak dira), kasu gutxi batzuetan izan ezik. Eta lan horretan asteko 15 ordu baino gehiago ematen dute. Gainera, emakume horien % 40k zainketaren ardura hartzen dute, laguntzarik gabe.

65 urtetik gorako gizonen % 27k ere adin txikikoak zaintzen denbora ematen dute, zehatz-mehatz, asteko 9 ordu. Haien emazteek ia 12 ordu ematen dituzte lan horretan.

15 eta 25 urte bitarteko emakumeek ez dute oraindik seme-alabarik eduki. Hala eta guztiz ere, haietako batzuek (% 19) adin txikikoak zaintzen dituzte, eta asteko 18 ordu ematen dituzte lan horretan. Inkesta erantzun duten adin horretako gizonak ez dute horrelako zereginik egiten.

26 eta 39 urte bitartekoen adin-tartean, emakumeen erdiek baino gehiagok seme-alabak dituzte, eta adina dela eta, mendekotasun handiko egoeran daude seme-alabak. Horregatik, emakumeen % 56k umeak zaintzen dituzte, eta, batez beste, astean 49 ordu ematen dituzte horretan. Zaintze-lanetan aritzen diren emakumeen % 34k adierazi du zainketa haien ardura bakarra dela, eta asteko 52 ordutik gora ematen dituztela horretan. Bikotekideek, ordea, 22 ordu ematen dituzte astean. Egoera hori eta bikotekidea ez den beste pertsona batekin erantzukizuna partekatzen duten pertsonena oso antzekoak dira. Emakumeen % 44k bikotekidearekin partekatzen dituzte erantzukizuna eta horretan emandako denbora. Emakumeak 49 ordu ematen ditu horretan, eta bikotekideak 42. Zaintze-lanak egiten ez dituztela dioten emakumeen % 5 seme-alabarik gabeko emakumeak dira, eta astean, batez beste, 11 ordu ematen dituzte horretan. Adin-tarte horretan, zaintze-lanak egiten dituzten gizonak galdetu diegunean, haiek erantzun dute astean 32 ordu ematen dituztela horretan, eta bikotekideek, ordea, 40.

Zaintze-lanak egiten dituzten 26 eta 39 urte bitarteko emakumeen % 44k lanaldi osoan lan ordaindua egiten dute (gutxienez astean 35 ordu); horrez gain, adin txikikoak zaintzen beste 40 ordu ematen dituzte astero, eta etxeko lanak egiten beste 11 ordu. Batez ere, adin-tarte

horretako emakumeek diote ez dutela bere buruarentzako denborarik (taldeko emakumeen % 15).

40 eta 55 urte bitarteko emakumeen % 75ek seme-alabak dituzten arren, seme-alaben adina dela eta, beharrezko zaintza-lanak ez dira hain handiak; horregatik, emakumeen % 43k adin txikikoak zaintzen dituzte, eta astean 37 ordu ematen dituzte horretan. Talde honetako emakume askok (zaintze-lanak egiten dituzten erdiak) bikotekidearekin partekatzen dute erantzukizuna. Emakumeek astean 35 ordu ematen dituzte horretan, eta gizonen % 26. Ordu-kopurua adin-tarte honetan baino orekatuago zegoen aurreko adin-tartean, baina bilakaera handia egon da. Zifra horiek eta gizonen egindako inkestan jasotakoak oso antzekoak dira.

55 eta 64 urte bitarteko emakumeek jada ez dute zaintze-lan handia behar duten seme-alabarik, ezta arreta behar duten bilobarik ere; horregatik, talde honek horretan emandako ordu-kopuru txikiarekin adierazi dute. Talde honetako emakumeen % 15ek astean 14 ordutik gora ematen dute adin txikikoak zaintzen. Adin-tarte horretako gizonen % 13k adin txikikoak zaintzen dituzte, eta haiek diote astean 25 ordu ematen dituztela horretan. Talde honetako gizonen % 13k bakarrik diote emakumeek baino ordu gehiago ematen dutela erreproduzio-lan batean (16 ordu).

2.4 Beste zainketa-lan batzuk

Landako emakumeen % 12k soilik dio adin txikikoen zainketa ez diren beste zainketa-lan batzuk egiten dituztela. Eta astean 25 ordu ematen dituzte horretan, batez beste. Gizonen % 12k ere halako zereginak egiten dituzte, batez beste, 18 ordu astean.

40 urtetik beherako emakumeek eta gizonen % 26k ez dute lan horretan denborarik ematen (eta datu horiek bat egiten dute aurreko inkestan jasotakoekin). Adin horretatik aurrera, pertsonen % 18k soilik halako zaintze-lanak egiten dituzte.

Bikoteen % 20k erantzunkidetasunaren arabera erregimenean egiten dituzte zaintze-lan horiek: emakumeek 8 ordu ematen dituzte horretan, eta gizonen % 7.

65 urtetik gorako emakumeek ez dute erantzunkidetasun hori, eta ordu-kopuru handiena ematen dute horretan (astean 49 ordu). Zaintze-lan horiek etxean mendeko pertsonak (ezkontidea, gurasoak edo neba-arreba helduak) zaintzeari buruzkoak dira, eta, emakumeek gain hartzen dituzte zereginaren erantzukizuna eta zeregina gauzatzeko betebeharra.

2.5 Lekualdaketak

Emakumeen % 82k eta gizonen % 85ek denbora-tarte handia ematen dute leku batetik beste batera joaten, zehazki, 5 ordu asteko. Alde horri dagokionez, sexuak edo lurraldeak ez dute alde nabarmenik eragiten. Eragin handiena duen faktorea adina da.

Gehien mugitzen direnak gazteenak dira: haietatik % 97k lekualdatu behar dute, eta astean 6 eta 6,5 ordu bitartean ematen dituzte horretan. 65 urtetik gorakoak kontrako egoeran daude, eta ahalik eta denbora gutxien ematen dute lekualdaketetan. Emakumeen % 63 lekualdatzen dira, eta 3,6 ordu ematen dituzte horretan. Adin horretako gizonen % 74 lekualdatzen dira, eta astean 3 ordu ematen dituzte horretan.

Lekualdaketetan denbora gehien ematen duten emakumeak gida-baimena eta autoa dituztenak dira. Garraio publikoaren edo hirugarrenen mende egoteak mugikortasuna murrizten du.

2.6 Nork bere buruari eskaintzen dion denbora

Aurreko inkestaren aldean, hobeak dira emaitzak. 2008an bere buruarentzako unerik ez zutela zioten emakumeek % 13 osatzen zuten, eta inkestan honen emaitza % 8 izan da. Batez beste, 2008an esan zuten beren buruari denboraren % 16 eskaintzen ziotela; eta, inkesta honen arabera, % 19. Bestalde, bikotekideek denboraren % 22 aisialdian ematen dutela uste dute, aurreko inkestan bezala.

Emakumeek beren buruari eskaintzen dioten ordu-kopurua ere igo da. Batez bestekoa 14 ordukoa da asteko. Gazteenek 16 orduraino ematen dituzte. 26 eta 54 urte bitartekoek 11 ordu, eta hortik aurrera, ordu-kopurua gora doa. 55 eta 64 urte bitartekoek 14 ordu ematen dituzte, eta 65 urtetik gorakoek 18.

Emakumeek uste dute bikotekideek haiek baino askoz denbora gutxiago eskaintzen diotela beren buruari; 55 eta 64 urte bitarteko emakumeek izan ezik, haiek denbora-kopuru bera ematen dutela uste baitute. Hala eta guztiz ere, gizonek beraiek ez dute iritzi bera, beren buruari eskaintzen dioten denborari dagokionez.

Landako gizonen % 92k esan du baduela bere buruarentzako denbora, eta, batez beste, astean 15,6 ordukoa dela uste dute (emakumeek baino 1,7 ordu gehiago). Adinaren banaketari dagokionez, emakumeen egoera errepikatzen da: gizon gazteagoek ia 19 ordu eskaintzen diote beren buruari; 26 eta 54 urte bitartekoek 12 ordu; 54 urtetik gorakoen artean batez bestekoa gora doa 16 orduraino; 65 urtetik gorakoek astean 23 ordu baino gehiago eskaintzen diote beren buruari. Adin-tarte guztietan emakumeek baino denbora propio gehiago dute gizonek.

3. Jarduera nagusia, lana eta enplegua

3.1 Jarduera, okupazioa eta langabezia

EAEn emakume aktiboen eta gizon aktiboen aldea % 12 da. Hala eta guztiz ere, alde hori amaitzeko prozesuan dago: 2005ean % 20 zen, 2008an % 18, eta 2012an, esan bezala, 12 puntukoa. Gainera, hobekuntza hori krisialdian gertatu da, eta, hein batean, agian, krisiagatik: gizonen jarduera-tasak behera egin du (4 puntu), eta, emakumeenak, ordea, gora (4 puntu ere bai).

8. taula: Biztanleria, jardueraren arabera (LANE) 2012⁸

		Aktiboak	Lanean	Langabezia			Lanik gabekoak
				Guztira	Lan egin dutenak	1. lana bilatzen	
EAE							
	Gizonak	61,1%	53,5%	7,6%	7,1%	0,5%	38,9%
	Emakumeak	49,1%	43,3%	5,7%	5,2%	0,5%	50,9%
Landa eremuan							
	Gizonak	66,4%	58,6%	7,8%	7,1%	0,8%	33,6%
	Emakumeak	53,1%	39,1%	14,1%	12,6%	1,5%	46,9%

Inkesta honek erakusten du landa-ingurunean jarduera-tasa handiagoa dela, baina aldea ere handiagoa da: emakumeen jarduera-tasa % 53raino heltzen da, eta gizonena % 66raino; beraz, aldea ehuneko 13,3 puntukoa da. Dena den, garrantzitsua da landa-inguruneke emakumeen tasa 4 puntu handiagoa izatea, EAEko jarduera-tasarekin erkatuta.

Emakumeen okupazio-tasari dagokionez, landa-ingurunea ez dago askoz hobeto: EAEko gizonen okupazio-tasa baino bost puntu handiagoa da landa-inguruneke gizonen okupazio-tasa; landako emakumeena, aitzitik, EAEko emakumeena baino lau puntu txikiagoa da. Gainera, kasu honetan, gizonen eta emakumeen arteko aldea ere handiagoa da, ehuneko 20 puntukoa, eta, EAEn 10 puntukoa.

9. taula: Jarduera-mota, ikasketa-mailaren arabera

	Aktiboak		Lanean		Langabezia	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Ikasketarik gabe	%12	%23	%3	%23	%9	%0
Lehen mailakoak	%29	%61	%20	%51	%10	%10
Nekazaritza LH	%79	%88	%79	%74	%0	%14
Beste LH	%77	%80	%55	%75	%22	%5
Batxilergoa	%56	%67	%40	%65	%16	%2
Unib. amaitu gabeko ikasketak	%59	%59	%28	%59	%31	%0
Unib. erdi mailako ikasketak	%82	%66	%67	%45	%16	%21
Unib. goi mailako ikasketak	%92	%82	%78	%72	%14	%10


Datu larriena izan liteke 2008tik 2012ra landako emakumeen okupazio-tasa % 52tik % 39ra aldatu izana. Eta, langabeziari dagokionez, landako emakumeen langabezia-tasak ia biderkatzen du gizonena. EAE osoan, ordea, langabezia-tasa hori txikiagoa da. Datu horiek bat egiten dute aurreko txostenen datuekin. Emakumeek lotura txikiagoa zuten ordaindutako lanarekin; orain, ordea, interesa ez ezik laneratzeko arazoak ere agerikoak dira. Eta, beste batzuetan ere egiaztatu dugun bezala, laneratzeko arazoen azalpena ez dago prestakuntzan – landako gizonen prestakuntza baino zabalagoa da emakumeena –, baizik eta sexuan. Eta, prestakuntza-maila bera izanda, emakume langabetuen ehunekoa handiagoa da.

3.2 Lan ordainduen ezaugarriak

Landun gizon eta emakume gehienak soldatuko langile finkoak dira, lan-mota ohikoena baita. Hala eta guztiz ere, gizonen kasuan, ekintzailatza ekonomikoa (enpresariak, autonomoak, kooperatiba-kideak, etab.) bigarren enplegu-nitxoa da, eta soldatuko langile finkoena ia bezain garrantzitsua. Emakume ekintzaileen kopurua, ordea, ez da oso esanguratsua.

⁸ EAEko datuen iturria: EUSTAT Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta 2012. LANE-ko terminologia.

7. grafikoa: Landun biztanleriaren lan-motak, sexuen arabera



Horrekin batera, lau emakumetik bat behin-behineko soldatako langilea da, eta, aitzitik, hamar gizonetik bat.

Gainera, egoera horrelakoa izanda ere, emakumeen % 46k esan dute (iritzia eman duten % 68) beren kasa lan egitea nahiago dutela; eta % 21ek (iritzia eman duten % 32) adierazi dute soldatako langileak izatea nahiago dutela.

Lanaldi partzialeko enplegua igo egin da landako emakumeen artean: 2008an % 21ek zuten horrelako lanpostu bat; eta 2012an % 28k dute. Denbora-tarte berean, lanaldi partzialak behera egin du gizonen artean: % 3tik % 2ra, eta hondar-balioak dira. Gainera, lanaldi partzialeko lanpostua duten gizonen erdiek esan dute lanaldi osoko lanpostua ez izateagatik dutela mota horretako lanpostu bat. Emakumeen % 52k lanaldi partzialeko lanpostua dute horiek direlako lortu zuten lanpostuaren baldintzak. Emakumeen % 14k esan dute lanaldi partzialeko lanpostuak bilatzen dituztela, zaintze-lanak eta etxeko lanak egin ahal izateko; eta emakumeen % 33k esan dute pertsonalki aukeratu dutela.

Egoera horrek genero-diskriminazioa eragiten du, eta emakumeak lanaldi partzialeko lanpostuetan sailkatzen ditu. Beste alde batetik, erreprodukzio-lanekin lotuta dauden betebeharrak emakumeak bultzatzen dituzte lanaldi partzialeko lanpostuak hartzera, askotariko obligazioak eta zereginak bateratzeko asmoz.

Ordainsaririk gabeko lanaren fenomenoak inkesta honetan ia ezabatu da, lanaldi partzialeko edo lanaldi osoko lanpostuak dituzten emakumei dagokienez.

4. Nekazaritza eta abeltzaintza aritzea

Txosten honen hasieran adierazi dugun bezala, landa-ingurunearen barne ez da soilik nekazaritza hartzen, askoz ere askotarikoagoa baita. Hala eta guztiz, imaginario kolektiboak nekazaritza-sektoreari lotzen dio, batik bat. Gainera, nekazaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde gehiena kudeatzen du.

Horregatik, inkestan atal berezia eskaini diogu nekazaritzari. Asmoa emakumeek sektorearen barnetik duten ikuspegia azpimarratzea izan da, hau da, nekazaritzari eta abeltzaintzari buruzko ikuspegia, emakumeek beren ingurune hurbilean dituzten jarduerak baitira.

4.1 Ustiategiarekiko lotura-maila


Landako emakumeak bizi diren ia familia erdietan (% 46n) bizikide batek nekazaritza-jardueraren bat egiten du. Ehuneko hori handiagoa da Bizkaian, familien % 51n; eta txikiagoa Gipuzkoan, % 39raino jaisten baita.

Adin-taldeei dagokienez, 26 eta 39 urte bitartekoek lotura txikiagoa dute nekazaritza-sektorearekin (familien % 31). Familia horiek eratu berriak dira, gazteak dira, eta haiek ez diote eutsi nekazaritzarekiko loturari. Emakume gazte gehienak (15 eta 25 urte bitartekoak) gurasoekin bizi dira. Etxea beste belaunaldi batena da, eta nekazaritzari lotuta jarraitzen du.

Ustiategien % 80 autokontsumorako erabiltzen dira. Familien % 10ek ustiategitik lortzen dute diru-sarreraren zati handiena; eta haietako % 60k nekazaritza dute diru-sarreraren iturri bakartzat. Familien beste % 10ek diru-sarreraren zati bat lortzen du ustiategitik.

Araban ustiategien % 69 autokontsumorako erabiltzen dira, eta % 17k diru-sarrera guztiak edo gehienak lortzen dituzte ustiategitik. Gipuzkoan ustiategien % 79 autokontsumorako erabiltzen dira, eta % 12k diru-sarrera guztiak edo gehienak lortzen dituzte ustiategitik. Bizkaian ustiategien % 89 autokontsumorako erabiltzen dira, eta % 4k diru-sarrera guztiak edo gehienak lortzen dituzte ustiategitik.

8. grafikoa: Landako etxebizitzak, nekazaritza-sektorearekiko loturaren arabera



65 urtetik gorako emakumeen taldea kontuan hartu gabe (talde horretan ustiategi gehienak autokontsumorako dira), nekazaritza-sektorearekin lotura duen eta nekazaritzatik gehien bizi den emakume-taldea 40 eta 54 urte bitartekoena da: ustiategiari lotuta dauden emakumeen % 66ek diru-sarrera guztiak ustiategitik ateratzen dituzte.

Landa-ingurunean bizi diren emakumeen % 66 nekazaritzan betidanik aritu den familia batekoak dira. Gipuzkoan eta Bizkaian ehuneko hori % 73raino igotzen da, eta Araban % 55eraino jaitsi. Dena den, emakumeen % 46 ez dira nekazaritzarekin lotutako etxe batean bizi, nahiz eta gurasoak nekazariak izan; eta emakumeen % 31 nekazari-familia batean bizi dira, nahiz eta gurasoak nekazaritzan aritu ez izana.

Nekazaritza-ustiategi bati lotuta dauden emakumeen jatorria aztertzen badugu, haietako % 78ren gurasoak nekazariak ziren: ehuneko hori Gipuzkoan % 91 da, Araban % 69, eta Bizkaian batez bestekoa.

4.2 Ustiategiko jarduerak

Ustiategiko jarduerari dagokienez, gehienek baratzezaintza dute, erdiek frutagintza, eta herenek hegatzaintza. Hala eta guztiz ere, jarduera-sektore horien jarduera, funtsean, autokontsumoari lotuta dago. Diru-sarrerak lortzeko erabiltzen diren ustiategietan jarduera horiek ez dira hain nabarmenak.

Helburu ekonomikoak dituzten ustiategietan honako hauek dira jarduera ohikoenak: haragitarako behi-azienda, mahastizaintza, laborantza estentsiboak; eta Bizkaian eta Gipuzkoan baratzezaintza. Garrantziaren arabera, hauexek datoz aurrekoen atzetik: esnetarako behi-azienda, ardi-azienda eta hegatzaintza. Diru-sarrera guztiak ustiategitik ateratzen baldin badira, ustiategian eraldaketa eta nekazaritza-turismoa egiten dira.


9. grafikoa: Azpisektorea, nekazaritzako diru-sarreraren arabera

	Diru guztia nekazaritzatik		Gehiengoa nekazaritzatik		Zati txiki bat nekazaritzatik		Autokontsumorako	Ustiategi guztira	
Frutarbolak		%16		%14		%24		%54	%47
Barazkigintza		%16		%37		%43		%99	%86
Lorezaintza		%9		%0		%15		%26	%23
Mahastizaintza		%19		%16		%17		%2	%5
Basozaintza		%7		%14		%3		%3	%4
Laborantza estentsiboa		%25		%52		%14		%0	%5
Esne-behiak		%17		%33		%8		%3	%6
Txerriak		%7		%14		%0		%4	%4
Oiloak edo/eta oilasko		%23		%14		%25		%30	%28
Haragitarako behiak		%40		%38		%36		%6	%12
Ardiak / ahuntzak		%23		%24		%22		%9	%12
Eraldaketa		%21		%0		%0		%0	%1
Nekazaritza turismoa		%15		%0		%6		%0	%1
Beste batzuk		%0		%0		%13		%6	%6

4.3 Titulartasuna

Ustiategi bati lotuta dauden familiak 21.000 baino gehiago dira. Eta ustiategien % 60n elkarriketaturiko emakumeek lanen bat egiten dute. Eta, emakume horien lege-egoera, ustiategiari dagokionez, aztertzen baldin badugu, datu harrigarria da haietako % 56k erantzun duela "ez daki, ez du erantzun, ez da egokia". 55 urtetik gorako emakumeen % 70 inguruk erantzun hori eman du, baita 15 eta 39 urte bitartekoak % 50ek ere. 40 eta 55 urte bitarteko emakumei dagokienez, % 34k erantzun du horrela, eta, kasu honetan ere erantzun ohikoena da. Galdera horrek kontuan hartzen zituen autokontsumorako erabiltzen diren ustiategiak.

10. grafikoa: Landako emakumeek zaintzen dituzten ustiategien titulartasuna



Helburu ekonomikoren bat duten ustiategiei erreparatzen badiegu, ustiategien % 46n emakumeek titulartasunen bat dute. Titularkidetasuna lege-egoera berria da, eta oraindik ez dago erabat ezarrita ustiategietan; gainera, oso gutxi dira erregistroan horrela inskribatu direnak. Hala eta guztiz ere, emakumeen % 22k titularkidetasuna aipatu dute.

4.4 Ustiategiaren eguneroko funtzionamendua eta erabakiak hartzea

Ustiategien % 20n eguneroko lana emakumeen esku dago; eta ustiategien % 35en beste pertsona batek egiten du. Autokontsumorako ustiategiak direnean, ohikoagoa da emakumeek ustiategiaren eguneroko funtzionamenduaz arduratzea.

Erabakiak hartu behar direnean, eskema bera errepikatzen da; beraz, beharra egitea eta erabakiak hartzea oso lotuta daude, bai eta titulartasuna ere.

4.5 Sektorearen egoera ulertzeko moduak

Landako emakumeek nekazaritza-sektorea nola ulertzen duten jakiteko asmoz, baieztapen batzuekin ados ote dauden galdetu zaie. Oro har, handia da emandako iritzien arteko adostasuna. Batez bestekoa 6tik gorakoa da sektoreari buruzko iritzia eman dutenen artean.

Emakumeak batez ere ados zeuden honako baieztapen hauekin:

- Nekazaritza-jarduna oso garrantzitsua da landako bizitzan (8,7).
- Nekazal produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko jarduerak laguntzen dute nekazaritza-jarduna errentagarriago egiten (8,6).
- Ustiategiek jarraituko badute, ezinbestekoa da gazteak nekazaritza-sektorean sartzea (8,4).

Nekazaritza-sektorean aritzen diren emakumeek adostasun handiagoa erakutsi dute baieztapen horiekin, baina gazteen parte-hartzeari buruzko baieztapenak 25 urtetik beherako emakumeei ez die halako ilusio handirik piztu.

Emakumeek honako baieztapen hauekin erakutsi dute adostasun txikiena:

- Nekazaritza-sektorean lan egiteak lana eta familia bateratzen errazten du (6,4)
- Nekazarien jardunak desagertzeko joera dauka (6,7)
- Nekazarien jarduna diru-laguntzen mende dago (7,2)

10. taula: Baieztapenekiko adostasun-maila (0-10)

Gazteak nekazaritza sektorean sartzea funtsezko faktorea de ustiategien jarritutasuna bermatzeko	8,4
Nekazaritza ustiategiak hobetzeko behr diren inbertsioak altuegiak dira	7,3
Sakrifiziorik handienak ordutegiak eta oporrak hartzeko zailtasunak dira	8,1
Nekazaritza sektorean lana egiteak bizitza laborala eta bizitza familiarraren arteko kontziliazioa errazten du	6,4
Nekazaritza jardueraren irabazi ekonomikoak oso murrizak dira	7,9
Nekazaritza jarduerak diru-laguntzekiko mendekotasun handiegia du	7,2
Nekazaritza ekologikoa etorkizunetarako aukera interesagarria izan daiteke	7,3
Nekazaritza jarduera desagertzeko bidean dago	6,7
Nekazaritza jarduerak ingurugiroa babesten lagundu dezake	8,3
Elkartegintza positiboa izan daiteke nekazaritza jarduerarentzat	7,9
Nekazaritza jarduerak paper garrantzitsua du landa eremuetako bizitza	8,7
Nekazaritza produktuak transformatzeak eta merkaturatzeak nekazaritza jarduera errentagarriago egiten lagundu dezake.	8,6

Oro har, nekazaritza-jarduerari buruzko baieztapen negatiboekin adostasun txikiagoa adierazi da: esaterako, desagertu egingo dela, diru-laguntzen mende dagoela edo ustiategiak hobetzeko egin beharreko inbertsioa handiegia dela dioten baieztapenekin.

Dena den, pertsona askok ez dute uste nekazaritza ekologikoa etorkizuneko aukera interesgarria denik. Bestalde, gehiagok uste dute nekazaritza-sektoreak landa-ingurunerako garrantzi handia duela eta ingurumena babesten duela. Nekazaritza-sektorearen etorkizuna bermatze aldera, beharrezkoa da gazteak sektorean sartzea, eta aukera hori oso garrantzitsua da.


Nekazaritza-sektorearen gaineko arazo batzuk aipatzen direnean, tarteko adostasuna adierazi da: esaterako, ordutegiak zailak direla, edo marjinak estu samarrak direla. Horrez gain, laguntza behar duten elementu batzuk aipatu dira: esaterako, elkarrekin eratzea sustatu beharra.

5. Bizitza landa-ingurunean

5.1 Informazio-gizartea

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiltzea ohiko bihurtu da gure gizartean, eta landa-ingurunea ez da salbuespen bat. IKTen erabilera landa-ingurunean eta EAEn antzekoa da, edo, agian, handiagoa da landa-ingurunean.

11. grafikoa: Teknologia berriak erabiltzea, adin-tarteen arabera



15 eta 54 urte bitartekoek teknologia berriak erabiltzeko aukera antzekoa dute: adin horretako biztanleen % 90ek ordenagailua du, mugikorra eta Internet. Bestalde, ordenagailurik edo Internetik ez izatea ohikoagoa da 55 urtetik gorakoen artean, eta batez ere, 65 urtetik gorakoen artean. Telefono mugikorra adin-tarte guztietan erabiltzen da.

Teknologia horien emakumezko erabiltzaileak gero eta gehiago dira, honako taula honek adierazten duen bezala:

	Ordenagailua	Internet
2012	% 74	% 71
2008	% 65	% 48


Gainera, behera egin du Internet inoiz erabili ez duten emakumeen kopuruak: 2008an % 50 zen, eta 2012an, ordea, % 34. Datu horiek kontuan hartuta, zilegi da esatea hiri- eta landa-inguruneen artean ez dagoela alde digital handirik.

5.2 Ekipoen eta zerbitzuen eskuragarritasuna eta ohiko erabilera

Landa-ingurunean emakumeek izan duten kezka nagusietako bat hauxe izan da: beren garapena, ikaste-prozesua eta hazkundera landako ingurunean bermatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eta ekipak eskuratu ahal izatea. Hori dela eta, inkesta honetan, 2004koan eta 2008koan bezala, emakumeei galdetu diegu ingurune hurbileko ekipamenduez eta zerbitzuez. 2012an egindako inkestan egoki iritzi diegu gizonei ere galdera hori egiteari, ikuspegia globalagoa izan zedin.

Erantzunen arabera, landako ingurunean zerbitzuak eta ekipamenduak onargarri samarrak dira. Elkarriketatu ditugun emakumeek eta gizonek "nahiko" bat eman diete guztiei.

12. grafikoa. Ekipoen eta tresnen eskuragarritasuna



Goiko grafikoa ikus dezakegun bezala, bizi-kalitate ona izateko beharrezkotzat jo ditugun ekipo guztiak herrian bertan daude edo ingurune hurbilean.

Honako hauek dira landako ingurunean hain eskuragarri ez dauden ekipo edo zerbitzuak: ambulancia medikalizatuak, bigarren hezkuntza, tren-geltokia, pediatria, medikuntza espezializatuak, merkatu eta denda espezializatuak. Datu horiek bat egiten dute 2008ko inkestan lortu genituenekin.

Landa-ingurunean zer ekipo eta zerbitzu eskuragarri dauden jakin ondoren, ohiko erabilera jakin nahi izan dugu. Izan ere, landako ingurunean horiek erabilgarri izateak ez du esan nahi erabili egiten direnik. Eta hala gerta liteke hainbat arrazoi direla medio: zerbitzuak erabiltzaileei egokituta ez izatea, erabiltzeko leku gutxi egotea, ordutegiak, etab. Ekipoak edo zerbitzuak han izateak baino argiago erakusten digu jakiteak emakumeek erabiltzen ote dituzten; horrek emakumeen eguneroko bizitzari buruzko datu gehiago ematen baitigu.

Lehen mailako arretari dagokionez, elkarrizketatu ditugun emakumeen % 95ek herrian bertan edo hamabost minutura dauden osasun-etxeak erabiltzen dituzte. Zerbitzu hori oso eskuragarri dago landako ingurunean: inkesta erantzun duten emakumeen eta gizonen % 75ek esan du herrian bertan osasun-etxea daukatela, eta ondo iritzi diote; gainera, ohiko erabilerak iritzi hori baieztatzen du. Pediatria-zerbitzuari dagokionez, aitzitik, ez da gauza bera gertatzen (eta zerbitzu hori oinarritzko arretaren barne hartuta dago). Landako ingurunean biztanleen % 20k baino ez du zerbitzu hori eskuragarri.

Eguneroko janari-erosketak egiteari dagokionez, emakumeen % 40k esan dute herrigunean bertan egiten dituztela; eta saltokiak herrian baldin badaude, ehuneko hori % 70eraino igotzen da. Azken kasu horietan, emakumeen % 7k soilik egiten dituzte eguneroko erosketak

herrigunetik hamar minutura baino urrunago dauden saltokietan. 40 urtetik gorako emakumeek, batik bat, eguneroko erosketak herrian bertan egitea nahiago dute. Lurralde historikoen arabera, herritik kanpo egiten diren erosketa-kopuru handiena Araban jaso da. Arrazoa izan liteke lurralde horretako herrien egitura; Arabako herriak baino handiagoak dira Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak. Beraz, agian, horrek azaltzen du herri horietan saltoki gutxiago edukitzea.

Bi emakumetik batek baino gehiagok nahiago du herrian bertan aisialdiaz gozatzea, kirola egitea, kopa bat hartzea irtetea edo elkarteetara joatea. Eta elkarteetan parte hartzeari edo kirola egiteari dagokienez, ehuneko hori % 60raino heltzen da; eta are handiagoa da, herrian kiroldegia edo gimnasioak baldin badaude. Dena den, 55 urtetik gorako emakumeek, eta, batez ere, 65 urtetik gorakoek (% 84) nahiago dute aisialdiko jarduerak herrigunean egitea. Aisialdiko jarduerak egiterakoan, emakume gazteagoek herritik irtetea nahiago dute, baina gehienez ere 15 minutura dauden lekuetara. 26 eta 54 urte bitartekoak dira aisialdiaz gozatzea 15 minutura baino urrunago dauden lekuetara joateko joera handiena dutenak, ziur asko, independenteagoak direlako, eta auto bat eskuragarri dutelako. Lurralde historikoen arabera aztertuta, ez dago alde nabarmenik.

Hezkuntza-maila zein den, seme-alabek non ikasi erabakitzen da. Herrietan haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako baliabide ugari daude, eta, hein batean, asko erabiltzen dira. Herrian haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako eskolaren zerbitzua baldin badago, emakumeen % 70ek erabiltzen dute. Azpimarratzekoa da Araban gertatzen dena: emakumeek zioten herrigunean ez zutela horrelako eskola-zerbitzurik, eta, horregatik, emakumeen % 20 inguruk baino ez dituela seme-alabak herriko eskolara eramaten. Gehienak lekualdatzen dira, baina etxebizitzatik 15 minutura. Gainera, kontuan hartu behar da elkarrizketatu diren pertsona gehienek esan dutela herrian badutela eskolara joateko garraio-zerbitzua. Horrek errazten du neska-mutilek egin beharreko lekualdaketa.

Eskola-maila aurrera doan heinean, bigarren hezkuntza eta eskolaz kanpoko jarduerak egin nahi dituzten pertsona gehienek 15 minutura joan behar dute. Gogoratu behar da inkestatu diren pertsonen % 15ek soilik esan dutela herrian bertan bigarren hezkuntzako ikastetxea zegoela. Eskolaz kanpoko jarduerari dagokienez, % 70ek esan zuten baietz, hau da, antolatu egiten zirela herrian. Erabilerari bagagozkio, % 40k soilik esan zuen herrigunean bertan egiten dituztela, agian, eskaintza oso erakargarria ez delako, eskasa delako edo erabiltzaileen beharrei egokiturik ez dagoelako.

5.3 Mugikortasuna

Landako emakumeek mugikortasunari ematen dioten garrantzia aintzat hartuta, herrigunetik irteteko dituzten zailtasunez edo erraztasunez galdetu zaie. Hori lotuta dago gidatzeko baimena izatearekin, auto bat edukitzearekin, edo garraio publikoak erabiltzeko aukerarekin. Baina horrek ez du esan nahi herrigunetik irten nahi dutenik, baizik eta, nahi izanez gero, irten ahal direla. Laburbilduz, irtetea edo geratzea aukeratu ahal dutela.

Landako emakumeen % 70ek gidatzeko baimena dauka, eta % 90ek baino gehiagok gidatu ohi du, hau da, auto erabilgarria duela. Adina aintzat hartzen badugu; gai honetan faktore garrantzitsua baita; 26 eta 54 urte bitarteko emakumeen % 90ek gidatu ohi dute; eta, 65

urtetik gorakoei dagokienez, % 20k soilik gidatzen dute. Beraz, garraio publikoa ezinbestekoa da emakume horien eguneroko bizitzan. Eta garraio publikorik ez dagoenean, familiakoek edo lagunek bete behar dute eginkizun hori.


Landako emakumeen % 8 garraio publikoen erabat mende daude, lekualdatu behar direnean. 65 urtetik gorako emakumeei galdetuta, % 13 daude egoera horretan; 15 eta 25 urte bitartekoaren ehunekoa are handiagoa da, zehatz-mehatz, % 17 (agian, eskola- edo unibertsitate-garraioa behar dutelako).

Inkestatu ditugun pertsonen iritzien arabera, maiztasuna (batez ere, asteburuetan) eta garraio publikoen ordutegiak hobetu behar dira, baita lurralde historikoetara joateko zuzeneko zerbitzuak ere.

5.4 Herriak aurrera egin dezan

Landako ingurunearen ikuspegi ahalik eta eguneratuena eta errealean lortu ondoren, interesgarria da landako ingurunearen bizitza hobetzeko edo errazteko zer behar den jakitea.

13. grafikoa. Herriak aurrera eramateko ekimenak



Nekazaritza-jarduna landako ingurunearen berezkoa da, eta, inkestatuek uste dute beharrezkoena dela, lurralde historikoek aurrera egin dezaten. Emakumeek zein gizonak, adin-tarte guztietakoek, ez dute nahi landako ingurunea bereizten duen hori galtzea. 40 urtetik gorako emakumeek eta gizon gazteek (25 urtetik beherakoak) ematen diote garrantzi handiena ekimen horri.

Landako inguruneke pertsonen bigarren kezka nagusia etxebizitza lortzea da. Gizonei baino gehiago kezkatzen zaie emakumeei, eta zaharrei baino gehiago kezkatzen zaie gazteei; eta hori logikoa da etxebizitza bat eduki beharra kontuan hartzen bada.

Aurreko bi ekimen horiekin batera, emakumeek eta gizonek uste dute honako hauek ere garrantzitsuak direla: landa-turismoko edo nekazaritza-turismoko lekuak sortzea, kanpoko pertsonen irekitzea, pertsona horiek herrian integratzea eta askotariko ekipamenduak edukitzea.

Datuak lurralde historikoen arabera aztertzen baditugu, hiru lurraldeetan uste dute nekazaritza-jarduerari gehiago lagundu behar zaiola, eta, hori ezinbestekoa dela bertako landa-ingurunearen idiosinkrasiari eusteko.

Horrez gain, Araban uste dute honako hauek ere garrantzitsuak direla, herriak aurrera egingo badu: pertsona gehiagok landa-ingurunean bizitzea erabakitzea eta udaletxeak pertsonengandik eta herritarrengandik hurbilago egotea.

Gipuzkoan, biztanleen kezka nagusiak honako hauek dira: etxebizitza bat eskuratzea eta bideak eta errepideak hobetzea. Horren arrazoia izan daiteke lurraldearen azpiegitura, hau da, baserri asko sakabanatuta egotea. Bizkaian, etxebizitza bat edukitzea ere kezkatzen zaie, bai eta kanpotarrak landako herrietara bizitzera joatea eta bertan integratzea ere.

6. Elkartegintza, politikan parte hartzea eta aisialdiko jarduerak

Parte-hartzea elkarrekin ez da nabarmen aldatu. Landako emakumeen % 36 elkarrekin batean dago. Parte txikiena hartzen dutenak emakume gazteenak dira (% 23).

15 eta 25 urte bitarteko emakumeek kultura-elkarrekin, dibertimenduzko elkarrekin edo kirol-arlokoetan parte hartzen dute, eta borondatezko jarduerak asko egiten dituzte. Emakume-elkarrekin ere parte hartzen hasi dira.

Hurrengo adin-taldean, gurasoen elkarrekin ere parte hartzen dute, baita elkarrekin profesionaletan, sindikatuetan eta alderdi politikoetan ere.


40 eta 54 adin-tartean aurreko adin-taldean agertu diren elkarrekin batera, emakumeen eta auzokideen elkarrekin gero eta garrantzi handiagoa dute. 55 urtetik aurrera, gurasoen elkarrekin parte hartzeari uzten diote, eta dibertimenduzko edo kirol-elkarrekin gehiago hartzen dute parte. Parte-hartzeak alderdi politikoetan gora egin du (batez ere, 1975ean 18 urte zituzten pertsonena, antza, belaunaldi hori bereziki motibaturik dagoelako).

65 urtetik gorakoetan parte-hartzea elkarrekin txikixeagoa da. Adin-talde horretan, gehiago interesatzen zaizkie honako hauek: elizari lotutako elkarrekin, olgetarako elkarrekin (jubilatuen klubak), eta, batez ere, emakumeen elkarrekin. Bestalde, ia ez dute parterik hartzen elkarrekin profesionaletan, sindikatuetan edo alderdi politikoetan.

Emakumeen erdiek parte hartzen dute landako ingurunean jardueretan. Emakume gazteen artean, hiru emakumetik bik parte hartzen dute jardueraren batean. Funtsean, hizkuntza-, dantza- edo kirol-ikastaroak egiten dituzte. Hurrengo adin-taldean, parte-hartzea elkarrekin oso handia da: hala ere, prestakuntza-jarduerak egin beharrean, hitzaldietara joaten dira, txangoak egiten dituzte, eskulanak edo antzeko jarduerak. 40 eta 54 urte bitarteko emakumeak, batez ere, hitzaldietara, erakusketara eta txangoetara joaten dira. Horrekin

batera, kirol-jardueretan, eskulanetan eta hizkuntza-ikastaroetan ere parte hartzen dute, eta dantza lehen baino gutxiago interesatzen zaie. Talde honetan ere jardueretan parte hartzen dutenen ehunekoa % 50era jaisten da. 55 eta 65 urte bitarteko emakumeen erdiei aurreko taldearen jarduerak interesatzen zaizkie, eta parte hartzen dute; baina, horrez gain, emakumeei eta berdintasunari buruzko gaiak ere nabarmen interesatzen zaizkie. Azkenik, pertsona zaharren artean, gutxi dira jardueretara joaten direnak (% 40), baina, inkestan azaldu dituzten arrazoiak, askotan, adina edo osasun-arazoak dira. Batzuetan, emakume zahar batzuek ezin dute jardueretan parte hartu mendekotasun-egoeran dauden senideak zaindu behar dituztelako, hau da, haiek zaintzeko ardura gain hartu dutelako. Egiten dituzten jarduerari dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira: hitzaldietara eta erakusketara joatea, txangoetara joatea eta eskulanak eta kirol-jarduerak egitea; garrantziaren arabera, bigarren interes-taldea emakumeei eta berdintasunari buruzko jarduerak osatzen dute.

124. grafikoa: Landako emakumeek egiten dituzten jarduerak




Bestelako jarduerari dagokienez, musikaren gainekoak nabarmentzen dira.

Parte hartzeaz gain, landako emakumeek interes nabarmena dute plan-mota guztietan esku hartzeko. Emakumeen % 65ek baino gehiagok jarduerak proposatu dituzte, haiei jarduera horiek egitea gustatuko litzaiekeelako, eta 65 urtetik beherakoei galdetuta, % 80k baino gehiagok proposatu dituzte jarduerak.

Gehien eskatu diren jarduerak hizkuntza-, informatika-, osasun- eta nutrizio-ikastaroak izan dira. Interesaren arabera, hurrengo taldean honako hauek daude: kirol-jarduerak, eskulanak eta antzekoak, baita emakumearen eginkizuna gizartean aztertzen dutenak ere.

135. grafikoa: Eskainiko balira, zer jarduera gustura onartuko liratekeen, eta nolako parte-hartzea izango luketen.



Honako hauek oso interesgarritzat jo dituzte inkestatuek: aisialdiko txangoak, erakusketara eta hitzaldietara joatea, enpleguari buruzko ikastaroak (batez ere, 40 urtetik beherako emakumeek aukeratu dituzte) eta dantza-jarduerak. Azkenik, abesbatzak eta beste batzuek osatzen duten taldea daude.

Egiten (edo eskaintzen) diren jardueren eta emakumeek eskatu dituzten jardueren artean honako hauek falta dira: nutrizio- eta osasun-ikastaroak (18 zenbakiko faktorea, egindakoen eta egin nahi dituztenen artean); informatika-ikastaroak (6 zenbakiko faktorea), enpleguari buruzko ikastaroak (4 zenbakiko faktorea), emakumeek gizartean duten eginkizunari buruzkoak (4 zenbakiko faktorea) eta hizkuntza-ikastaroak (3 zenbakiko faktorea).

Eskaintzen diren jardueretara ez bertaratzeko edo elkarteetan parte ez hartzeko arrazoiak dira, besteak beste, interesik eza edo pertsonen zaletasunak bestelakoak izatea; eta, hain garrantzitsua ez bada ere, denborarik ez izatea (bereziki, 26 eta 55 urte bitartekoen artean). Beste arrazoi batzuen artean, adin-kontuak eta zaintze-lanak egiteko erantzukizuna aipatu dira.

Azkenik, landako emakumeei galdetu zaie ingurune hurbilenean, hau da, udaletxeetan eta udalbatzetan politikan parte hartzeko prest dauden. Haietako % 15ek esan dute prest daudela parte hartzeko, eta datu hori duela lau urtekoa baino hobea da. 26 eta 39 urtekoek gogo handiagoa dute, baina, gaur egun, gehien parte hartzen dutenak 55 eta 65 urte bitartekoak dira (% 7). Azpimarratzekoa da 65 urtetik gorako emakumeen parte-hartzea, eta, gainera, parte hartzen jarraitu nahi dute. Horrez gain, badago belaunaldien erreleboa, 25 urtetik beherako emakumeen % 12 parte hartzeko prest daudelako; horrez gain, talde batek oraindik ez du horretan pentsatu.

7. Etorkizuna

Emakumeei galdetu zaie herrian bizitzen jarraitzeko asmoa duten, eta seme-alabek han bizitzen jarraitzea gustatuko litzaiekeen (benetan seme-alabak dituztenei zein, modu hipotetikoan, seme-alabarik ez dutenei). Bestela esanda, landako herrietan bizitzea, nekazaritzari lotuta zein ez, erakargarria den aztertu nahi izan da.

Norberaren egoerari buruz, bi galdera mugatu egin dizkiegu: Herri honetan bizitzea edo herritik irtetea; eta, hirugarrena, inguruabarren arabera. Erantzunak ez dira 2008koak bezain kontraerriak izan; eta askok erantzun dute inguruabarren arabera erabakiko luketela.

Emakumeen % 75ek uste dute herrian bizitzen jarraituko dutela, eta haietako % 8k aukeran herritik irtetea nahiago dute. Lurraldeen arabera, Bizkaiko emakumeek herrian bizitzen geratzeko joera handiagoa dute (% 83); Araban, emakumeen % 66k geratzeko asmoa dute. Herritik joatea gutxien nahi dutenak gipuzkoarrak dira (% 3) eta arabarrak (% 15).

Adinen arabera, gazteenak dira herritik joateko plan gehienak egiten dituztenak (% 28), eta inguruabarrei adi daude, aldaketak egon daitezkeelakoan (% 45). 2008ko inkestan, herritik joateko asmoa zuten emakume gazteek % 11 osatzen zuten, eta erabakia inguruabarren mende uzten zutenek % 17.

Ehuneko horien arteko aldea areagotzen da, emakumeak zahartu ahala: 65 urtetik gorako emakumeen % 91k herrian geratzeko asmoa dute, eta % 3k joateko gogoia.

Seme-alabentzat zer nahi duten galdetu zaienean, emakumeen % 96k iritzi bera adierazi dute seme-alaben etorkizunaren gainean. Iritzi ezberdina adierazi dutenean, badirudi horren arrazoiak egoera bat dela, nahia baino.

Emakumeen % 65ek nahi dute seme-alabak herrian bertan geratzeko, eta % 17k nahi dute seme-alabak herritik joatea. Emakumeen % 18k "Beste batzuk" erantzuna aukeratu dute. Azalpen gehienetan esan dute hori seme-alabek erabaki behar dutela, eta gurasoen gogoia lekuz kanpo dagoela; beste batzuen ustez, seme-alabak herritik irtetea nahiago dute, beste egoera batzuk ezagutuko lituzketelako, baina, epe laburrera seme-alabak herrira itzuliko liratekeelako itxaropena dute.

Inkesta honetan, seme-alabak herritik joan daitezen gehien nahi dutenak ez dira emakume zaharrak, baizik eta emakume gazteak; eta tarteko adin-taldeak (26 eta 65 urte bitartekoak) dira seme-alabak herrian bizitzen geratzeko argiago nahiago dutenak (emakume horien seme-alabek erabakia hartzeko adina dute, edo laster izango dute).

Nekazaritza-ustiategi batez arduratzen diren emakumeek gehiago nahi dute seme-alabak herrian bertan geratzeko eta nekazaritzan aritzea (ustiategi bat dutenen % 6k hala nahi dute, eta ustiategi bat ez dutenen % 3k). Talde horretako emakume zaharrek nahiago dute seme-alabak herritik joan daitezen. Ustiategi bati lotuta dauden emakume gazteagoek seme-alabak herrian gera daitezen nahi dute (ustiategi bati lotuta ez dauden emakume garaikideek baino gehiago).

Oro har, eta aurreko inkestaren harira, etorkizunari begira, herriari buruzko balioespenak okerrera egin du, eta, batez ere, nekazaritzari buruzkoak, nahiz eta, orokorrean, landako bizitzari eusteko oso garrantzitsua dela pentsatu.

8. Ondorioak

Landa-guneek berezko ezaugarriak izaten dituzte, hiriguneetatik bereizten dituztenak. Hori bai, berezitasun horiek ez dira askoren irudimenean daudenak, batik bat hiriguneetan bizi direnen imajinarioan.

Aurreko urteetan egindako ikerketek argi erakutsi bezala, landa ingurune batean bizitzeak ez du inolaz ere nekazaritzan edo abeltzaintzan lan egitea esan nahi; hori bai, egia da landa-guneetako herritarrek gertuagokotzat dutela euskal nekazaritzaren eta abeltzaintzaren errealitatea. Etxebizitza mota ohikoena, berriz, baserria edo familia bakarreko etxebizitza da. Aldiz, bertan bizi direnek ez dituzte jada hiru belaunaldi edo gehiagoko familia handiak osatzen, baizik eta hiruzpalau kideko sendi arruntak. Bestalde, landa-guneetan hirietan aurki daitezkeen ekipamenduak ez izan arren, bertan bizi direnek ez dute urrutiegi joan behar zerbitzuok eskura izateko. Horren erakusle, kasurik gehienetan, ekipamendu horiek bizi diren landa-guneetan bertan aurkitzen dituzte herritarrek, ez 15 minutu baino gehiagoko distantziara. Ondorioz, ohiko jarduerak horietan egiten dituzte.

2012ko lan honetan landako gizonei ere inkesta egin diegu. Helburua Euskadiko landako emakumeen gaineko informazio gehiago lortzea izan da. Lehengo inkestak egiteko plangintzan, emakumeei galdetzen genien beren bikotekideei buruz, eta horrek ez zigun unibertsoari buruzko erreferentzia errealik ematen, eta ezinezkoa zen ikuspegia erkatzea.

Horrek guztiak sexu bien erantzunak erkatzeko aukera eman digu. Horri esker, hauxe jakin dugu: denboraren erabilerari dagokionez, emakumeek gizonei buruz eman zituzten erantzunek bat egin dutela gizonek emandako erantzunekin; aitzitik, gizonei bikotekideaz galdetu diegunean, haiek, emakumeek aitortzen dutena baino denbora gehiago esleitu diete emakumeei zereginak egiteko. Beraz, baliteke emakumeek oso aintzat ez hartzea beraiek egiten duten lana, historian zehar balio gutxi aitortu zaiolako haien lanari.

Horrenbestez, denboraren erabileran rol tradizionalak mantendu direla esan daiteke, egia bada ere etxeko lanen, zaintza lanen eta etxetik kanpoko lanaren banaketa orekatuago baterantz aldaketa antzematen hasi dela.

Emakumeek etxeko lanetan ematen duten denbora bikotekideek ematen dutenaren bikoitza da batez beste, baina, aldiz, orain dela lau urte eskas hirukoitza zen; horrez gain, etxeko lanen ardura guztia hartzen zuten emakumeen portzentajea 2008an % 57koa bazen, 2012an % 47koa zen.

Bestalde, erantzunkidetasun ehunekoa % 23tik % 21era murriztu da. Kontuan izan behar da, hori bai, erantzunkidetasunak ez duela ezinbestean etxeko lanak egiten denbora bera ematen dela esan nahi; izan ere, hori kasuen % 48an bakarrik gertatzen da, kasuen % 45ean emakumeak direlarik etxeko lanak egiten ordu gehiago ematen dituztenak.

Adin txikikoak zaintzeari dagokionez, egoera oso antzekoa da. Gizonek baino denbora gehiago ematen dute emakumeek adin txikikoak zaintzen, emakumeen lan-egoera, adina edo seme-alaben kopurua alde batera utzita. Hala da ia kasu guztietan, honako kasu honetan izan ezik: 55 urtetik gorako gizonek esaten dute haiek eta bikotekideek denbora-kopuru bera ematen dutela adin txikikoak zaintzen.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari dagokionez, gora egin du zaintze-lan horiek egiten dituzten emakumeen kopuruak (2004an, % 8,5; eta 2012an, % 12). Datu hori kontuan hartzekoa da, zeregin horrek fisikoki eta psikologikoki egileari higadura eragiten diolako, eta, gainera, arduradunen aisialdia murrizten da.

Hala ere, badirudi landa-inguruneetako emakumeek aisialdiari eskainitako denbora % 16tik % 19ra igo dela, euren bikotekideen kasuan denbora hori % 22n mantendu delarik. Emakumeen erdia baino gehiagoren kasuan, denbora hori ikastaroak egitera edo elkarteetan parte hartzera bideratzen dute, besteak beste. Ikastaroen kasuan, arrakasta handiena dutenak hizkuntza, dantza eta eskulanei lotutakoak dira. Elkarteei dagokionez, berriz, emakume elkarteak, aisialdira bideratutakoak edo kirolarekin lotutakoak izan ohi dira emakumeen artean arrakastatsuenak. Hori bai, eskola-adinean dauden haurrak dituzten emakumeen kasuan, ohikoa izaten da ikastetxeetako guraso elkarteetako kide izatea.

Ordaindutako lanari dagokionez, agerikoa da krisi ekonomikoa landa eremuetan ere nabaritu dela, langabezia tasak gora egin baitu nabarmen, batez ere emakumeen artean. Horren erakusle, emakumeen langabezia tasa gizonezkoenaren ia bikoitza da uneotan landa eremuetan.

Lan egiten duten emakumeen kasuan, berriz, ia hirutik batek lanaldi partzialeko lana du. Kasurik gehienetan (% 52), lanaldi osoko lana aurkitzen ez duelako da horrela. Lanaldi partzialeko lanak dituzten emakumeen % 33k, aldiz, horrela aukeratu du, eta, beste % 14 batek, zaintza lanak edo etxeko lanak egin behar dituelako egin du lanaldi partzialaren alde.

Inkesta honekin lotutako aurreko txostenetan ikus genezakeen bezala, landa-guneetako emakumeek harreman txikiagoa dute ordaindutako lanarekin hiriguneetakoek baino.

Hala eta guztiz ere, landa-guneetako emakumeek lanari (ordaindutakoa, zaintzakoa edo etxekoa) eskaintzen dioten denbora euren bikotekideek eskainitakoa baino pixka bat gehiago izan ohi da (duten denboraren % 74 emakumeek eta % 71 euren bikotekideek). Gainera, lan mota bakoitzari eskainitakoa denbora genero estereotipoek baldintzatzen dute oraindik ere, emakumeek espazio pribatura lotuago jarraitzen dutelarik espazio publikora baino. Azken urteotako azterketek, hori bai, joera aldaketa bat gertatzen hasi dela erakusten dute, gutxika-gutxika baina etenik gabe emakumeek etxeko lanei edo zaintzari eskainitako denbora gutxitzen ari delarik gizonek eskainitakoa areagotzen ari den bitartean.

Orain arten ez dugu nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako lanaren inguruan hitz egin, landa-guneetan garrantzitsuena ez bada ere, herritarren imaginarioan pisu handia duen lan mota da.

Landa-inguruneetako etxeen ia erdian, % 46n, nekazaritzarekin edo abeltzaintzarekin lotutako jardueraren bat egiten da, baina horietako bostetik batean bakarrik esan daiteke jarduera hori profesionala dela, hau da, etxeko diru-sarreraren zati baten edo diru-sarrera guztien iturburu

dela. Nekazaritzari edo abeltzaintzari lotutako profesional portzentaje handiena duen lurraldea Araba da (landa-guneetako herritarren % 17) eta, ostean, Gipuzkoa (% 12). Azken lekuan eta distantzia handira, Bizkaia agertzen da (% 4). Landa-inguruneetako herritarren artean lan aukera garrantzitsua ez izanagatik, nekazaritzak eta abeltzaintzak rol oso garrantzitsua betetzen dute landa-inguruneetako ohiko bizitzari eutsi eta ingurumena babesteko orduan, bertako emakumeek beraiek aitortzen duten bezala. Hori dela-eta, gazteek lehen sektorean lan egiteko aukera gehiago izatea aldarrikatzen dute, besteak beste jarduerok eraldaketaren eta zuzeneko merkataritzaren bidez errentagarri eginez.

Historikoki, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren munduan gizonezkoak izan dira protagonista nagusiak eta, egoera gehiegi aldatu ez den arren, gutxika-gutxika emakumeak lehen sektorean leku nabarmenagoa hartzen ari dira. Ildo horretan, kontuan izan behar da emakumeek betidanik egin dutela lan lehen sektorean, euren ekarpena aitortu izan ez den arren. Gaur egun, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako eta helburu ekonomikoren bat duten ustiatuegien % 46k emakume bat dute titular, titularkide edo partekatutako kide –figura juridiko berria da azken hori–, 2008an baino 4 puntu gehiago.

Kontuan izan behar da, halaber, gaur egun nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako lanak egiteko teknologia berriak baliatzeko aukera dagoela; landa-inguruneetako emakumeak, gainera, etengabe ari dira bat egiten teknologion erabilpenarekin, urtetik urtera gero eta gehiago direlarik telefono mugikorra, ordenagailua edota Internet erabiltzen dutenak.

Zerbitzu birtual horiek erabiltzeak, hori bai, ez die galarazten emakumeei landa-guneek euren eskura jarritako ekipamendu eta zerbitzuak baliatzea. Hala eta guztiz ere, 2008ko inkestan bezala, hainbat gabezia ikusten dituzte oraindik; besteak beste, medikalizatutako anbulantziak, bigarren mailako hezkuntza, tren geltokiak, merkaturak, eta pediatria eta medikuntza espezializatuko zerbitzuak ez izatea. Horrenbestez, azken urteotan landa-guneetan ekipamenduetan eta zerbitzuetan egindako inbertsioak ez direla aski izan edo ez dituztela landa-guneetako emakumeek beraiek egindako eskaerak kontuan izan ondoriozta genezake.

Horrez gain, kontuan izan behar da herrietan zerbitzuok eskaintzen direnean, herritarrok asko erabili ohi dituztela. Gehiengoa behar duena etxetik gertu aurkitzen ez duenean bakarrik irteten da bere ingurunetik. Horrek, bide batez, ondorio garbi batera garamatza: gidatzeko baimena eta ibilgailua izatea oso garrantzitsua da eguneroko bizitza non egin erabakitze askatasuna izateko. Uneotan, emakumeen % 70ek baino gehiagok dute bai gida baimena, bai gidatzeko ohitura. Hala ere, adinak gora egiten duen heinean, portzentaje hori txikitu egiten da, batetik bestera joateko besteen edo garraio publikoaren beharra areagotu egiten delarik. Hori kontuan izanik, emakumeek garraio publikoak maiztasun handiagoa izatea eskatzen dute, baita lurralde historikoetako hiriburueta lotura zuzena izatea ere.

Landa-guneetako herritarrak euren lurraldeaz harro daude, herri batean bizitzeko aukera baloratzen dute eta ez dute bertatik alde egin beharra izaterik nahi. Ez hori bakarrik, seme-alabek jaio diren landa-guneetan bizitzen jarraitzea nahiko lukete, eta, horregatik, euren ingurunea hobetzeko eskaerak egiten dituzte, besteak beste etxebizitza izateko aukerarekin, nekazaritza eta abeltzaintza landa-guneekin intrintsekoki lotutako etorkizun aukera gisa sustatzeko ekimenekin eta kanpokoak herriotara bizitzera joan eta bertan integratzea bultzatzearekin lotuta.